## KONTUAN HARTU-BEHARREKO GAUZAK

Sagrarioak hutsik egon behar dau.
Nahikoa ogi kontsagratu; Hostia handi bi jarri.
Kanpaiak «Aintza»rako, edo txilinak
Mahaitxo baten prestatu (Oleoak eta) eskeintza
Nortzuk izango diren ekarleak izentatu
Intzentsua erabili
Kandelak eroateko gizonezko bi
Gordelekuko kandelak Jaunartze ondoren biztu

# EGUEN SANTU EGUNEKO JAUNAREN AFARIKO MEZEA





† Jaunaren bakea beti zuekin.
—**Eta zure espirituarekin.**
† Emoiozue bakea alkarri

† Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa;
hona munduko pekatua kentzen dauana.
Zoriontsuak honen mahaira deituak.

—*Jauna, ni ez naz inor*
*zu nire etxean sartzeko,*
*baina esaizu hitz bat eta osatuko naz.*

**Jaunartzean**

1. Ogi hau jaten dauanak izango dau bizia.
Kaliz hontan aurkitzen da Jainko-odol guztia:
**R/. Hor dogu janaria ta hor gure edaria.**

2. Jaungoikoak deitzen gaitu: bera dogu janari.
Beragan dogu aurkitzen osasuna ugari.
**R/. Zelan begiratzen deutson Jainkoak gizonari!**

3. Danok gaur jaten badogu ogi bat mahai batean
ezin izan gorrotorik gaurtik gure artean.
**R/. Alkar maitatu dagigun Jesusen izenean.**

## JAUNARTZE OSTEKO OTOITZA

*Egin daigun otoitz!*
Jainko ahalguztiduna,
hemen ospatu dogun zure Semearen afarian
barriztatu gaituzu;
egizu, egun baten,
haren erreinuko mahaian asetu gaitezala.
Errege bizi da-ta, gizaldi ta gizaldietan.
—Amen.

## Oharrak



† Bere bizia emoteraino maite gaituan Jauna izan bedi zuekin.
—Eta zure espirituarekin.

## DAMU OTOITZA

Hurreratu gaitezan fedez Jesusengana; autortu daigun gure Jaun eta Salbatzaile lez eta gutaz errukitu daitela eskatu deiogun.

- Jesus Jauna: zeurea lango maitasuna es*ka*tzen deuskuzuna: *Erruki, Jauna*.
- Jesus Jauna, zerbitzen ira*kas*ten deuskuzuna: *Kristo, erruki*.
- Jesus Jauna: bizia geure alde emoteraino *mai*te gaituzuna: *Erruki, Jauna*.

## AINTZA

*(Kanpaiak eta txilinak)*

(*Ohargleak*)
Garizuman ez dogu Aintzarik abestu, baina gaur gogotsu eta pozik abesten dogu:






Horregaitik, Jauna,
zure Semearen heriotza eta biztuera gogoratuz,
biziaren ogia eta salbamenaren kaliza
eskeintzen deutsuguz,
Zuri eskerrak emonez,
altaran zeure zerbitzari onartu gaituzulako.

Eta apalik eskatzen deutsugu,
Kristoren Gorputza eta Odola hartzen ditugunok
Espiritu Santuak bat egin gaizala.

Izan gogoan, Jauna,
mundu guztian zabaldurik dagoan zeure Eleizea;
eroaizu maitasun osora,
I. gure Aita Santuarekin,
I. gure Gotzainarekin,
eta eleiz gizon guztiekin batean.

Era berean, izan gogoan, Jauna,
bizteko itxaropenean joan diran gure senideak
eta hildako guztiak ere;
hartu egizuz zeure aurpegiaren argitan.

Erruki zakiguz, arren,
guk guztiok betiko bizitza jaritsi daigun,
Jainkoaren Ama Maria Birjina dohatsuarekin,
haren senar Jose santuarekin,
Pedro eta beste Apostolu santuekin
eta, gizaldi guztietan,
zure adiskide izan diran santuekin;



zenbat lagun behar dan kontuan harturik. Aberea akats bakoa izango da, arra, urtekoa, artxoa nahiz aumea. Hilaren hamalaura arte gordeko dozue, eta egun horretan, ilunabarrean, israeldar alkarteko guztiek hilgo dabe. Gero, odola hartu eta jango dozuen etxeko atearen zutoin biak eta ateburua odolez igurtziko dozuez. Gau horretan, sutan errea jango dozue haragia, legamin bako ogiz eta bedar mingotsez lagundurik.
Honan jango dozue: gerria loturik, oinetakoak jantzirik eta makila eskuan, abiatzeko prest; presaka jango dozue, Jaunaren Pazkoa da-eta, hau da, Jaunaren igarotea. Gau horretan Egipto osoan zehar igaroko naz, eta hil egingo ditut Egiptoko lehen ume guztiak, bai gizakienak eta bai abereenak, eta neure epaia emongo deutset Egiptoko jainkoei. Ala Ni Jauna! Odola izango dozue ezaugarri zagozen etxeetan. Odola ikustean, aurrera igaroko naz; holan, Nik egiptoarrak jotean, izurriak ez zaitue zuek hondatuko.
Egun hau gogoangarri izango dozue eta jai nagusiz ospatuko dozue Jaunaren ohorez. Jai honen ospakizuna betiko lege izango dozue belaunez belaun».

*Jaunak esana*

## **Erantzun Salmoa** (Ps 115)




Zelan ordainduko deutsat Jaunari
egin deustan on guztia?
Salbazino-edontzia dot jasoko
eta Jaunaren izenari dei egingo. R/.

Mingarri jako Jaunari
bere fededunen heriotza.
Zure zerbitzari ezereza naz, Jauna,
askatu dozuz nire kateak. R/.

**Oparigaien gaineko otoitza**

Egizu, Jauna,
zintzo hurreratu gaitezala sakramentu honetara;
opari hau gomutagarri lez ospatzen dogun bakotxean
geure erospena egiten da-ta. Jesukristo...
—Amen.

Jauna zuekin ..... Eta zure Espirituarekin
Gora bihotzak..... Jaunagan daukaguz
Eskerrak Jaungoiko gure Jaunari..... Egoki da eta zuzen

Egoki da, bai, eta zuzen
non-nahi eta beti zuri eskerrak emotea,
Jauna, Aita guztiz santu,
Jaungoiko ahalguztidun betiko horri,
Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

Berau dogu egiazko eta betiko abadea:
behin-ta-betiko eskeintza barria jarri nahiez,
bere burua eskeini eutsun opari salbagarri,
eta guri agindu euskun opari hau bere oroigarri eskeintzeko;
horrela, guretzat eskeinitako gorputza jatean,
indarrez beteten gara;
eta guretzat isuritako odola edatean,
gure pekatuetatik garbitzen.

Horregaitik, aingeru eta goi-aingeruekin,
eta zeruko talde guztiekin,
zure aintzari goratzarre hau
beti ta beti abesten deutsogu.

Santu, santu, santua...

**(II. Eukaristi otoitza)**



mahaitik, erantzi eban soin-gainekoa, eta esku-zapi bat harturik, bere gerrian lotu eban. Gero, ontzi bat urez bete, eta ikasleei oinak garbitzen hasi jaken, eta gerrian eukan esku-zapiaz sikatzen.

Pedrogana heldu zanean, honek esan eutson: «Jauna, zuk niri oinak garbitu?» Eta Jesusek: «Zuk ez dakizu ni orain egiten nabilana; geroago ulertuko dozu».

Pedrok: «Zuk ez deustazu niri behin ere oinik garbituko». Eta Jesusek: «Garbitzen ez bazaitut, ez dozu zerikusirik nigaz».

Simon Pedrok orduan: «Jauna, ez oinak bakarrik, baita eskuak eta burua ere». Jesusek erantzun eutson: «Garbitu bat hartu dauanak ez dauka oinak garbitu beharra baino, beste dana garbi dago-ta. Zuok ere garbi zagoze, baina ez guztiok». Baekian nork salduko eban, eta horregaitik esan eban: «Ez zagoze garbi guztiok».

Oinak garbitu eutsezanean, soin-gainekoa hartu, eta barriro mahaian jesarrita, esan eutsen: «Badakizue zer egin deutsuedan? Zuek "Maisu" eta "Jaun" esaten deustazue; eta ondo esana, horixe naz-eta. Maisu eta Jaun izanik, oinak garbitu badeutsuedaz, zuok ere bardin garbitu behar deutsozuez oinak alkarri; jarraibidea emon deutsuet, Nik zuoi egin deutsuedana, zuok ere egin dagizuen».

**Jaunak esana**

***Homilia* (Ez dago «Sinisten dot»ik)**

**JAINKO HERRIAREN OTOITZA**

Maitasunaren eta eskeintzaren egunean, munduari samurtasun handiagoz begiratzen deutsogu eta gizateri osoaren beharrizan eta itxaropenak aurkezten deutsaguz Aitari.

- Bakearen itxaropenean bizi dan gure Herri honen alde: Bakea Jainkoaren grazia lez hartzeko eta lantzeko gertatu daiten, parkamena eta berradiskidetzea bideratuz. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Gure Elizbarrutiaren alde: parrokia guztiak alkartasunean jokatu daigun eta Ebanjelizatze Egitasmoan sendo lan egin daigun. *Eskatu deiogun Jaunari*.

- Herri pobretuen alde: eurak dira Gizadiaren zauri gorriak, entzun nahi ez dogun garrasi profetikoa. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Eukaristia presiditzera deituak diran abadeen alde, eta elizlanetan diharduen guztien alde. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Eguen Santu honetan, eskatu daigun gure maitasun eta laguntza gehien behar dabenen alde: txiroen, gaixoen, bakarrik eta baztertuta dagozanen alde, eta euren ohe ondoan edo laguntzan hainbeste sufritzen daben laguntzaile eta zaintzaileen alde. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Gure Pastoral Barrutiko parrokien eta eliztarren alde; euretako ongileen alde; eta Jesusen Afaria ospatzeko alkartu garenon alde: deitu gaituen Jesusen maitasunaz jardun daigun aurrerantzean. *Eskatu deiogun Jaunari*.

† Onartu, Aita, zure Semearen ikasleen alkarteak zuzentzen deutsun otoitza, eta emoiguzu fedez eskatzen deutsuguna. Jesukristo gure Jaunaren bitartez.

## Olioen eta eskeintzarien aurkezpena

**Oharra**

Sakramentuen, hau da, Jesukristok gugan egiten dituan ekintzen ospakizunean, olioak leku nabarmena dau. Olioa indar eta ongizatearen zeinua da.

Antxina, euren misinoaren hasierea adierazoteko, erregeak eta profetak olio lurrinduaz igurzten ebezan. Eta Jesusi Mesias eta Kristo esaten jako, eta horrek “Gantzutua” esan gura dau.



Urtero, Eguen Santuko Krisma-Mezan, gotzainak Krisma konsagratzen dau —bateoan, sendotzan eta abadegintzan erabilteko—, eta gaixoen olioa eta kristaugaien olioa bedeinkatzen dau.

Horixe egin da goizez Katedralean, eta orain guk olio horreik jasoten doguz, gure alkartean, urtean zehar, sakramentuak ospatzeko.

*Olioak ekarriko dira kantu bat abesten dan bitartean.*

*Lehenengo **gaixoen olioa** aurkeztuko da eta abadeak esango dau:*

**A/** Bedeinkatzen zaitugu, Jauna, gaixoen olioagaitik eta sufritzen diharduen gure anai-arrebak babestu daizala eskatzen deutsugu.

**E/** Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

***Kristaugaien** olioa aurkezten da*

**A/** Bedeinkatzen zaitugu, Jauna, kristaugaien olioagaitik; bateoan eurokin igurtziak izango diranek Ebanjelioaren ezagutzan hasi daitezala eta kristau bizitzan gogotsu jardun daiela.

**E/** Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

***Krisma** santua aurkezten da*

**A/** Bedeinkatzen zaitugu, Jauna, krisma santuagaitik; bateoan, sendotzan eta abadegintzan bere zeinuaz markatuak izango diranak Espirituaren dohainen oparotasuna jaso dagiela, holan Elizea hazi eta zure Seme Jesukristoren osotasunera heldu daiten.

**E/** Bedeinkatua Zu, Jauna, orain eta beti.

*Olioak bistan itziko dira*

*Ondoren, ogia, ardaoa, ura eta batutako dirua aurkeztuko dira.*

Gorespen-oparia deutsut eskeiniko
eta Jaunaren izenari dei egingo.
Beteko deutsadaz Jaunari agintzariak,
herri guztiaren aurrean. R/.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei** (1Kor 11, 23-26)

Senideok: Jaunagandik hartuta daukat nik, neuk zuoi emon deutsuedan hau: Jesus Jaunak, saltzekoa zan gau haretan, ogia hartu eta, esker-otoitza eginda, zatitu egin ebala, esanez: "Hau neure gorputza da, zuentzat emoten dana. Egizue hau neure gomutagarri."

Bardin egin eban kalizagaz ere, afal ostean, berbok esanez: "Kaliza hau itun barria da nire odolean; egizue hau, edaten dozuen bakotxean, neure gomutagarri." Beraz, ogi honetatik jaten, eta kaliza honetatik edaten dozuen bakotxean, Jaunaren heriotzea iragarten dozue, Bera etorri arte.

**Jaunak esana**.

**<u>Ebanjelio aurrean</u>**

**R/. Alkar maite dagigula, zuk maitatu bezala.**




**† Jesukristoren ebanjelioa san Joanen liburutik Jn 13, 1-15**

Pazko-jai aurrean, ikusi eban Jesusek etorri jakola mundu honetatik bere Aitagana joateko ordua, eta munduan egozan beretarrak maite izanik, azkeneraino maitatu zituan.

Afaltzen egozan. Ordurako arerioak buruan sartuta eukotson Judasi, Simon Iskarioteren semeari, Jesusen saldukeria egitea. Jesusek jakinik Aitak gauza guztiak eskura emon eutsozala, Jaungoikoagandik etorrela, eta Jaungoikoagana joiala, jagi zan



Santu zara, bai, Jauna,
eta santutasun guztiaren iturri;
egizuz, bada, santu ogi-ardao honeek,
zeure Espiritua isuriz,
Jesu Kristo gure Jaunaren Gorputz eta ✠ Odol
egin daitezan guretzat.

Berak, saldu ebenean, gau honetan, hain zuzen,
eta bere gogoz kurutzera joiala,
ogia hartu eta, eskerrak emonez,
zatitu eban eta bere ikasleei emon eutsen, esanez:

**HARTU EIZUE ETA JAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE GORPUTZA DA-ETA,
ZUENTZAT EMONGO DANA.**

Era berean, afalondoan,
kaliza harturik,
barriz ere eskerrak emonez,
bere ikasleei emon eutsen, esanez:

**HARTU EIZUE ETA EDAN GUZTIOK HONETATIK:
HAU NEURE ODOLAREN KALIZA DA-ETA,
ITUN BARRI ETA BETIKOAREN ODOLA,
ZUENTZAT ETA ASKORENTZAT
PEKATUAK PARKATZEKO ISURIKO DANA.
EGIZUE HAU NEURE OROIGARRI.**

**Hau da sinismenaren misterioa.**

Zeure kurutze eta biztueraz
munduaren salbatzaile zarana,
salba gagizuz, Jesus Jauna!






## Otoitza

*Abadeak:* Egin daigun otoitz

Jainko Jauna, zure Seme bakarrak,
bere burua heriotzara emon aurretik,
betiko Itunaren opari barria itzi eutson Elizeari;
haren maitasun-agiri dan Afari santua ospatzeko
batu gaituzu gaur hemen;
egizu, misterio handi hau ospatzeak
maitasunez eta bizi barriz bete gaizala.
Zure Seme Jesukristo...
—Amen.

### Irakurgaien sarrera-oharra

Pazkoaren ospakizuna egun gogoangarria zan hebertarrentzat, belaunaldiz-belaunaldi ospatzen ebena.

**EXODO liburutik** (Ur 12, 1-8. 11-14)
Egun hareetan, honan berba egin eutsen Jaunak Moisesi eta Aaroni Egipton: «Hilbete hau izango dozue hilbete nagusia, urte guztiko lehenengoa. Esaiozue israeldarren alkarte osoari: «Hil honen hamarrean, bakoitzak abere xehe bat hartuko dau, familia eta etxe bakoitzeko bana. Abere osoa jateko familia nahiko ez bada, aldameneko bizilagunekaz alkartuko da, bakoitzak jan daikeanaren arabera



eurekin batera goratu zaiguzan,
Jesu Kristo zure Semearen bitartez.

Honen bitartez, honekin eta honengan,
Zuri, Jainko Aita ahalguztidun horri,
Espiritu Santuarekin batean,
ospe eta aintza guztia
gizaldi eta gizaldi guztietan.
Amen.

† Salbatzaileak agindu eta irakatsiari jarraituz, bildur barik esan dagigun:

Gure Aita, zeruetan zarana:
santu izan bedi zure izena,
etor bedi zure erreinua,
egin bedi zure nahia
zeruan bezala lurrean ere.
Emoiguzu gaur egun honetako ogia;
parkatu gure zorrak,
geuk ere geure zordunei
parkatzen deutsegun ezkero,
ez eiguzu itzi tentazinoan jausten,
baina atara gagizuz gatxetik.

† Atara gagizuz, Jauna, gatx guztietatik; emoiguzu bakea gure egunotan, zure errukiari esker pekatutik garbi bizi izan gaitezan eta estualdietan sendo. Betiko zorionaren itxaropenean Jesukristo gure Salbatzailea noiz etorriko dan zain gagozala.

- **Zeurea dozu erregetza,**
  **zeureak ospe ta indarra orain eta beti**.

† Jesukristo gure Jauna zeuk esana da Apostoluei: Bakea izten deutsuet, neure bakea emoten. Begira zure Elizearen sinismenari eta ez gure pekatuei eta zeure gogoa danez, emoiozu Elizeari bakea, emon batasuna, errege bizi zara-ta. Gizaldi ta gizaldietan.
—Amen.

## SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok:

Arratsalde eder honetan, hemen gagoz, ikasleak afaltokian lez, Jesusen inguruan batuta. Harrituta, une gogoangarria bizi izango dogu: Jesusek bere ogia eta ardaoa izten deuskuz bere eskeintzaren zeinu eta presentzia izan daitezan betiko, eta agindu bat emoten deusku: maite egizue alkar neuk maite izan zaituedan lez!

Ospatu daigun Jaunaren Afariaren Eukaristia.

### Sarrerako abestia




**1** Zure besotan, oi kurutzea,
hil jaku Jesus maitea.
Haren kurutze ezartzailea
neu naz, neu, pekataria.

**2** Jesukristoren odolak zaitu
Kalbarioan gorritu.
Ezerk geroztik munduan ez dau
zuk bezainbat distiratu.

† Aitaren eta Semearen eta Espiritu santuaren izenean.
AMEN.



—Bihar, arratsaldeko 7retan izango dogu *Jaunaren Nekaldiko* eleizkizuna. Bihar *barau eta haragi-izte* eguna dogu: gogoan izan.

### Oharra sakramentu santua gordean itzi aurretik

Jesus, Biziaren ogia, kristau alkartean geratzen da. Hortik komulgatuko dogu bihar. Gaur, sekula baino gehiago, bere erregalua eskertzen dogu, sakramentuan gure artean dagoalako gurtzen dogu.

**(Kandeladunek laguntzen deutsoe, eta intzentsuak)**

### Eleizbirarako abestia

Jesus maitea zan azken Afarian
bera emon nahirik ardao ta ogian.
Guretzat zalarik hilteko aurrean
maitasunak eukan bihotza menpen.

**Gurtu daigun beti Jesus Jainko Jauna,
sakramentu honetan gurekin dagoena**.

Apostoluei minez esan deutse:
«Ni gaur saldua naiz, bihar hilgo nabe.
Aitarenganako denpora jat bete,
hona orain zenbat zaituedan maite.»

### Gordelekuan abesteko

**Hor zagoz, Jesus, altarean,
gorde nahi zaitut bihotzean.**

*Zeruetako Jaun handia eginik gure janaria.*
*O maitetasun ugaria, gizonarentzat gehiegia (bir).*

### *Bedeinkapena emon ondoren*

**ZOAZE JAUNAREN BAKEAN**

Eskerrak Jainkoari